

BILBOKO UDALAK BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUAREN JANARI-BILKETA HANDIAN PARTE HARTZERA ANIMATZEN DITU HERRITARRAK

- **Janari-bilketa handia egiten den seigarren aldia da. Bilketa gaur, hilak 16 (astelehena) hasi eta zapatuan, hilak 21, amaituko da.**
- **Elikagaiak establezimenduetan boluntarioei poltsetan eman beharrear, *ELIKAGAI-BONUA* erabiliko da. Bonu hori kutxatik pasatzean eskuratuko du bezeroak, nahi duen zenbatekoa jarrita.**

(Bilbon, 2020ko azaroaren 16an). -Bilboko Udalak bat egin du aurten ere Bizkaiko elikagaien bankuaren janari-bilketa handiarekin eta bide batez, kanpainan parte hartzera animatzen ditu herritarrak –bakoitzak ahal duen neurrian-, gaur, azaroak 16 (astelehena), hasi eta hilaren 21era (zapatua) arte. Antolatzaileek diotenez, *“Euskadiko elkartasun-ekitaldi garrantzitsuena izango da ziurrenik, baina aurtengoa oso bestelakoa izango da, bizi dugun pandemiak janaria jasotzeko egiteko modua aldarazi digulako”*.

Elikagaien Bankuak adierazi duenez, elikagaiak establezimenduetan boluntarioei poltsetan eman beharrear, ELIKAGAI-BONUA erabiliko da. Sistema horrekin, kutxatik pasatzean janari-bonu bat eskuratzen du bezeroak, nahi duen zenbatekoa ordainduta. Diru hori urtean zehar erabiliko da, elikagaiak erosteko.

Halaber, jakinarazi dute [web orriaren](#) bidez beste bide batzuk erabili daitezkeela laguntzeko: Bizum, kreditu-txartela, kontu korrontea eta Paypal. Dohaintza-formula berri horri dagokionez, adierazi dutenez *“sekula ez dugu dirua zuzenean eskatu nahi izan, gure asmoa elikagaiak bildu eta banatzea baita; baina, gaur egungo inguruabarrek bultzatuta, salbuespenez, aurten dirua eskatu beste biderik ez daukagu, eta argi utzi gura dugu Bizkaiko Elikagaien Bankuak ez duela sekula dohaintzarik edo bankuko daturik telefonoz eskatuko”*.

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ÁNIMA A LA CIUDADANÍA A PARTICIPAR EN LA GRAN RECOGIDA DE ALIMENTOS ORGANIZADA POR EL BANCO DE ALIMENTOS DE BIZKAIA

- Se trata de la séptima edición de la Gran Recogida, que tendrá lugar desde hoy, lunes 16, hasta el próximo sábado 21.
- La donación de alimentos en vez de ser mediante la entrega de bolsas a las personas voluntarias en los establecimientos, será por medio del **BONO ALIMENTO**, que se adquiere un bono alimento del importe que el cliente desee al pasar por caja.

(Bilbao, 16 de noviembre de 2020). -El Ayuntamiento de Bilbao se suma a la campaña de recogida que ha preparado el Banco de Alimentos de Bizkaia y anima a que la ciudadanía bilbaina participe – cada de uno de la manera que pueda- en la séptima edición de la Gran Recogida, desde hoy lunes 16 de noviembre hasta el próximo sábado 21. Como señalan desde la organización, *“posiblemente es el evento solidario más importante de Euskadi, aunque esta edición será muy distinta porque la pandemia que padecemos nos obliga a cambiar la forma de llevarla a cabo”*.

El Banco de Alimentos ha explicado que la donación de alimentos en vez de ser mediante la entrega de bolsas a las personas voluntarias en los establecimientos, será por medio del **BONO ALIMENTO**. Con este sistema en el momento que se pasa por caja cuando se adquiere un bono alimento del importe que el cliente desee. Este dinero donado quedará depositado y se va utilizando ese fondo a lo largo del año para adquirir alimentos.

Asimismo, han informado de que se puede colaborar a través de [página web](#) por medio de Bizum, tarjeta de crédito, cuenta corriente y Paypal. Sobre esta nueva fórmula de donación han manifestado que *“la petición directa de dinero nunca nos ha gustado porque lo nuestro es recoger alimentos y repartirlos, pero las actuales circunstancias nos obligan de forma excepcional, este año a solicitar dinero, dejando muy claro que desde el Banco de Alimentos de Bizkaia, no se ha hecho ni se hará ningún tipo de campaña de solicitud por teléfono de donativos ni de datos bancarios”*.